

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2024 000003763

OSOKO BILKURA DEIALDIA

Xedea

2024-06-27 (e)ko OSOKO BILKURA deialdia.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2023ko uztailaren 5eko Udal Osoko Bilkuran osoko bilkuren aldirotasuna finkatzea onartu zen. Aldirotasunaren inguruan, hain zuzen ere, hauxe onartu zen:

“ ...

LEHENENGOA: Osoko Bilkuren aldirotasuna modu honetan finkatzea, lehentasunez:

Hilero, azken ostegunetan 18etan, salbu eta ekaineko eta uztailleko osoko bilkurak goizez izango direla 8.30tan.

Abuztuan eta abenduan ez da osoko bilkurarik egongo.

BIGARRENA: 2023. urterako lehentasunez erantsitako egutegia onartuko da eta urtean-urtean bozeramaileek adostuko dute egutegia. Dena den, alkateak justifikatutako arrazoiengatik (jai eguna delako, agenda arazoak daudelako, quoruma bermatzeko...) edo bozeramaileek gehiengoz erabakitzearen ondorioz eguna eta/edo ordua alda daiteke.

...”

Bigarrena: 2023ko azaroaren 24ko Bozeramaileen Batzarrean saioen 2024. urterako egutegia onartu zen eta horren arabera 2024ko ekainaren 27an ohiko Osoko Bilkura egongo da.



Argudioak

Bakarra: Alkatetzak OSOKO BILKURAKo deialdia egiteko eskumena dauka aipatutako artikuluez gain, legeria honen arabera:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak, 21.1.c) artikulua
- Azaroaren 28an 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiak (AFA) 41.4 artikuluetan xedatutakoa.

Ebazpena

Goian aitaturakoa kontuan hartuta, honako hau ebatzi dot:

LEHENENGOA: OSOKO BILKURA osatzen daberen zinegotziak deitzea ohiko batzarrera.

BIGARRENA: Deialdia Alkatetza Dekretu honen eranskinean agertzen diran zehaztasunen arabera egin eta bertan agertzen dan gai zerrendea onartzea. Ikusi 1. eranskina.

HIRUGARRENA: 1. deialdian quoruma izateko zinegotzi nahikorik egon ezean, batzarra automatikoki egun bi geroago eta ordu berean deitzea 2. deialdian.

LAUGARRENA: Jakinaraztea zinegotzietan asistentzia nahitaezkoa dala, bertaratzea galarazten dauen arrazoi justifikaturik egon ezean.

BOSGARRENA: Jakinaraztea gaurtik aurrera, udal honetako Egoitza Elektronikoa edo Idazkaritzan eskura dagozala gai zerrendako gaiakaz zerikusia daukien espedienteak.





BATZAR DEIA

Deitutako organoa:	OSOKO BILKURA
Batzarra:	Ohikoa
Deialdia:	1. deialdia
Eguna:	2024-06-27 (Osteguna)
Ordua:	09:00
Lekua:	GIZARTE ETA KULTURA ETXEKO GAZTELEKUKO LOKALA
2. deialdia:	2024-07-02 (Osteguna) 09:00


GAI ZERRENDEA

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2024-05-30 OB (06)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Etxebizitza babestuen eta zuzkidura bizitokien eskatzaileen erregistroari lotutako hainbat prozedurari dagokienez, informazio partikularrari eta espezializatuari eta herritarrei bitarteko elektronikoen erabileran laguntzeari buruzko Bermeoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaz hitzarmena onartzea.
- 4.- NEIKER-INSTITUTO VASCO DE INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO AGRARIO, S.A. enpresak, LIFE URBASO proiektua garatu ahal izateko, Arranotegiko 47. Basoaren erabileraren doako eta zuzeneko lagapena egiteko eskaria onartzea.
- 5.- Bermeoko auzoetako zenbakiak zuzentzea onartzea.



- 6.- 2023 urteko biztanle-zifra onartzea.
- 7.- 2024 urteko Lokalbide programako dirulaguntzaren oinarriak onartzea.
- 8.- EH BILDU eta GUZAN udal taldeek aurkeztutako "EAEko portuetan ontzien amarralekuak emateko prozedura eta erabilera arautzen duen dekretuari buruz" izeneko mozioa onartzea.
- 9.- EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako "EAEko portuetan ontzien amarralekuak emateko prozedura eta erabilera arautzen duen dekretuari buruz" izeneko mozioa onartzea.
- 10.- EH Bilduk eta GUZAN udal taldeek aurkeztutako "Galdakao-Usansoloko Ospitalean oinarrizko pediatria zerbitzu bat eta arrisku baxuko erditzeen artatze-Zerbitzuaren" aldeko udal-mozioa onartzea.
- 11.- EH Bildu, GUZAN eta EAJ-PNV udal taldeek aurkeztutako "LGTBIQ+ Harrotasunaren Eguna" izeneko adierazpen instituzionala onartzea.
- 12.- 2024ko 2462-3197 zenbakidun alkatetza dekretuen barri emotea.
- 13.- Tokiko Gobernu Batzarreko erabakien barri emotea: 2024ko maiatzaren 28 eta 30 eta ekainaren 4 eta 11ko erabakiak.
- 14 - Eskari eta itaunak.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean.

 STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E800101B5400H1F9P1O8X3O1	Sinadurea eta data NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 21/06/2024 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/06/2024 13:04:41	: 202400003763 Data: 21/06/2024 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia